

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko erroldak

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, Hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2024ko erroldak jendauerrean egongo dira udal idazkaritzan, hogeitau egun baliodunetik, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean iragartzen da ondasun higiezinaren gaineko zerga epe hauetan kobratuko dela:

1. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: udalak ondasun higiezinaren gaineko zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da. Lehenengo zatia 2024ko ekainaren 15etik abuztuaren 14ra bitartean bilduko da, eta bigarrena, berriz, aurtengo azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

B) Premiamendu aldia: lehenengo zatiarena, 2024ko abuztuaren 15etik aurrera, eta bigarrena, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera; egun horietatik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, kasuan kasuko errekararekin (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako Zergena, 28. artikulua).

2. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak.

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideraketaren banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan ordaindu beharko dute borondatezko aldian.

3. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2024ko maiatzaren 10a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR